



**LESAKAKO UDALA (NAFARROA)**  
**AYUNTAMIENTO DE LESAKA (NAVARRA)**

**LESAKAKO UDALA**

**Jakinarazpen ediktua**

Alkatetzaren 441/2017 Ebazpena, azaroaren 27koa, jakinarazi ahal izan ez denez gero, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen da, Administrazio Prozedurari buruzko Legean eta aplikagarria den gainerako legerian xedatutakoa bete dadin.

**441/2017 ebazpena, azaroaren 27koa, Lesakako Udaleko alkateak emana, biztanleen udal erroldan ofizioz baja emateko espedientea hasten duena.**

Ikusirik Maria Teresa Ortega Laibarrak aurkezturiko idazkia, non eskatzen duen ondoren adierazten den pertsonari Biztanleen Udal Erroldan ofizioz baja emateko, ez delako bizi erroldatuta dagoen etxean:

- Andrea Samanta Domingue, C02061129 zenbakiko pasaporte.

Kontuan hartuz, Toki Entitateen Biztanleriaren eta Lurralde Mugapenaren gaineko Erregelamenduko 72. artikuluekin bat etorritz, Udalak baja emanen diela, inskripzio okerragatik, aipatutako Araudi horren 54. artikuluan ezarritako baldintzak bete gabe erroldatuak agertzen direnei.

Ebatzi dut:

1 – Lehen aipaturiko pertsonari herri honetako Biztanleen Udal Erroldan ofizioz baja emateko espedientea hastea, ez delako bertan bizi.

2 – Interesdunari jakinaraztea ebazpen hau hartu eta hurrengo 15 eguneko epean baja honekin ados dagoen ala ez adierazi ahalko duela. Azken kasu honetan, egoki juzgatzen dituen dokumentuak eta justifikazioak aurkez ditzake.

Lesakan, 2017ko abenduaren 20an.

Alkatea,

Jose Luis Echeagaray Andueza.